

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
LURRALDEA MAHAIAREN 1. BILERA

Bertaratutakoak:

- Agurtzane Diaz (Deba Garaia Landa Garapen elkarte)
- Leticia Alvarez (Udaleko Hirigintza teknikari burua)
- Dorleta Eguiara (Obra eta zerbitzuen burua)
- Juan Luis Gonzalez (Alkateordea, Lurraldea arloko lehendakaria)
- Gorka Artola (Alkatea, Lurralde arloko batzordekidea)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Oihane Arruabarrena (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:30.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, "Bergara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan landuko den Bergarako Plan Estrategiko Jasangarria diseinatzeko aurrera eramango den parte-hartze prozesua (bai udal mailan zein herritarrekin) azaldu dute eta bide batez, prozesuaren beraren mugarriak zeintzuk izan diren laburbildu dute.

Aholkularitza enpresak, diagnostikoaren azterketa eta hausnarketatik 2030era begira hainbat jarduera arlo proposatu ditu aurkezpenean. Hauen gainean hainbat ekarpen egin dituzte bertaraturiko teknikariek eta ordezkari politikoez:

- San Lorenzoko industrialdea eta Katabia inguruetakoa ur-zikinak Bergarako kolektorera lotzeko obra-lanei dagokienean amaiturik daude San Lorenzoko kasuan eta aurreratuta Katabia ingurukoan.
- Etxebizitzek erreketara ur-zikinak isurtzea ekiditeko neurriak hartzea proposatzen bada ere, Udalak baserrietan ur zikinetarako putzuak prestatu eta mantentzeko dirulaguntzak eskeintzen dituela aipatu da (Diagnostikoan jasoko da).
- Euri-urak erabiltzeko sistemak ezartzea proposatzen da (kale-garbiketarako, adibidez). Ildo honetan, udal ordezkariak jakinarazi dute euri-urak ezetz baina piszinako urak erabiltzen direla gaur egun kale garbiketarako. Hauen egokitasuna zalantzak jarri dute teknikariek duten lixiba kontzentrazioagatik. Gorkak dioenez, ordea, piszinako ura erabili aurretik lixiba dekantatzen da eta ez legoke arazorik egon beharrik hau erabiltzeko. Gaia argitu beharko litzatekeela adosten da: gaia argitu ahal izan da eta piszinako ura deskloratu egiten da berrerabili aurretik.

Ondoren, lurraldea-mahaiaren 1. Saioko helburuak 2 direla aipatu dute (aholkularitza-taldeko kideek zuhaitz batean irudia erabili dute azalpenak emateko):

- 1) Gaur egun Bergarak dituen ahuleziak eta beharrak antzematea, eta baita, potentziatu beharreko indarguneak ere. Hori guztiak zuhaitzaren sustraiak izango lirateke.
- 2) Egungo egoeratik abiatuz, 2030 urtera begira irudikatzen dugun Bergara lortzeko helburuak adostea. Helburuak zuhaitzaren etorkizuneko fruituak izango lirateke.

2 horiek erdiesteko asmoz, dinamika ezberdinak garatu dira bileran zehar eta honakoak dira lortutako emaitzak:

LEHEN DINAMIKA: ZUHAITZAREN SUSTRAIAK ZEINTZUK DIREN ZEHAZTEA

Lanketa hau egiteko, batetik udalerriko lurralde antolamendua, hirigintza, paisaia, mugikortasuna eta ingurumen alderdi ezberdinen ikuspuntutik gaur egun dauden ahuleziak eta beharrak antzeman dituzte bertaratutakoek, eta bigarrenik, alderdiok etorkizunean egoera hobea izan dezaten ahalbidetzeko herriak dituen indarguneak zerrendatu dituzte. Horiek guztiek irudikatu dugun zuhaitzaren oinarria (hau da, sustriak) osatu dute, etorkizuneko erronkak eta helburuak finkatzen lagunduko digutenak.

AHULEZIAK ETA BEHARRAK:

Lurralde antolamendua eta mugikortasuna:

- Trama industrial zaharkitua eta zatikatua, gaur egungo beharrei egokitzen ez dena.
- Industria eremua birgaitzeko beharra dago, batez ere hiri-bilbean (trama urbanoa).
- Mugikortasun ereduak gutziz baldintzatzen du hiri-eredua.
- Nekazaritza jarduerarako lur-erreserbak behar dira, nekazari/abeltzain berriei aukerak eman eta elikadura subirotasunaren bidean aurrera egiteko. Sentsibilizazio mailan lan handia egin behar da zentzu honetan.

Hirigintza:

- Alde zaharra egoera eskaxean dago, birgaitze behar handia du.
- Udal jabetzakoak diren eraikinak birgaitu eta balioan jarri beharrean daude.
- Parke estalien beharra dago.
- Ondare eraiki asko edukitzeak kudeaketa ekonomikoa zailtzea dakar.
- Etxebizitza huts asko dago eta hauek irisgarritasun eta energia eraginkortasuneko parametroetara egokitu gabe daude.
- Etxebizitzak birgaitzeko ez dago udal dirulaguntzarik.

Ura eta saneamendua:

- Ur eta sanemenduko sare oso zabala dagoen arren, falta diren azpiegituren kostua handia da oso, eduki dezaketen etekinerako.

Energia:

- Energia aurrezteko ekintza-plan baten falta (praktikoa, lehentasun eta epeekin). Azterketak, diagnosiak, etab. egin izan dira baina jarraitasunik ez dute izan.

Hondakinak:

- Birziklapen-tasa altuek errealitatearen pertzepzio okerra eman dezakete. Oraindik hondakin gehiegi sortzen da eta benetan ondo birziklatzen al dugu?
- Kale garbiketan jasotzen diren hondakinak (barredora, eskuz jasotakoak, etab.) ez dira bereizten, zuzenean errefusara doaz. Udazkenean batez ere jasotzen denaren ehuneko altu bat hostoak dira eta biohondakin moduan tratatu ahal izango liriateke.

Ingurumen inpaktua:

- Ingurumenaren aldetik zalantzazkoak izan daitezkeen jarduerak oraindik erregularizatu beharrean daude.

Bestelakoak:

- Gehiegizko burokrazia.
- Oposizioaren jarrera.
- Diru falta.



INDARGUNEAK ETA AUKERAK:

Lurralde antolamendua, mugikortasuna, hirigintza:

- Industriarako lurzorurako prestatuak dauden eremu aukera badago (Larramendi) baina horien prezioa garestia da.
- Garatu gabeko industria eremua indargune bat da.
- Landa auzoetan mugikortasunaren inguruan egiten ari den lanketa.
- Herri eremuan hazkunderik ez da aurreikusten.
- Landa eremua zabala da eta hau birpopulatu eta biziberritzeko interesa ageri da.
- Udal jabetzakoak diren landa eta baso eremuak aukera ugari eskaini dezakete.
- Ondare arkitektoniko-kultural-natural ezinhobea.
- Parke eta aisialdirako gune ugari daude.
- Kaleko altzariak asko zaintzen dira.

Ura eta saneamendua:

- Ur hornidura eta saneamendu sarea eta zerbitzua Udalarena izatea.

Energia:

- Energia aurrezteko azken urteetan egin diren ahaleginak: kale argiteria LED argiteriagatik aldatzea, etab.

Hondakinak:

- Kaleko zaborrontzietako hondakinak oso ondo sailkatuta egoten dira orokorrean.

Besteak:

- Udal gobernuak duen filosofia ekologista
- Departamenduko teknikarien ezagutza

BIGARREN DINAMIKA: 2030 FRUITUAK ZEHAZTEA

Oinarri horietatik abiatuz, 2030 urtera begira Bergarako lurralde antolamendua, hirigintza, paisaia, mugikortasuna eta ingurumen alderdi ezberdinen ikuspuntutik lortu beharreko **helburuen eta erronken zerrenda** jaso da (hauek aholkularitza-enpresak aztertuko ditu eta helburutan bilakatuko ditu):

- Plan Orokor (HAPOa) berria garatzea, egoera eta behar berriei egokituta. HAPO berrian ezarri beharreko zeharkako irizpideak adostea (klima-aldaketa, berdintasuna, etab.).
- Landa auzoak biziberritzea eta birpopulatzea, biztanle kopuruak gora egitea eta zerbitzuen kalitateak hobetzea. Honi lotuta, tokiko produktuen kontsumoa areagotzea. "Ereindajan"ek eta Azokako proiektuak indarra hartzea, eredu berrietara egokituta.
- Udal eraikinak eta instalakuntzak jasangarriak (eraginkorrak) eta mantenuagarriak izatea.
- Udal zerbitzuen ibilgailuen flota elektrikoa eta jasangarria izatea edo aldatzen joatea beharren arabera.
- Ur hornidurako hoditeria amiantorik gabekoa izatea. Gutxienez amiantozko hoditeria ordeztu eta hondakinen kudeaketarako ekintza-plan bat prestatzea.
- Industriaren birgaitzerako: finantziario/dirulaguntza bideak topatu (EJ/EUROPA), partzelen permutak egin, urbanizazio aldetik egokitu (Udalak), etab.
- Etxebizitza eta lokal hutsak betetzeko politika/dirulaguntzak sustatu ("*Cirujia Urbana*")
- Etxebizitzak birgaitzeko (irisgaritasuna/energia) dirulaguntzak eskaintzea.
- Mugikortasun-eredu berriak bilatzea.
- Bidegorri sarea osatzea: oraingo ardatza (Elorregi-Osintxu), Antzuola-Ibargarai eta herriguneko zatiak ardatzarekin lotzea.
- Bergara eukaliptorik gabeko herria izatea. Kanpo espeziei mugak jartzea eta bertako basoak sustatzea.
- Ibaia balioan jartzea, hiria eta ibaiaren arteko loturak/harremantzea bultzatuz.
- Udal ondare arkitektoniko-kulturalaren kudeaketa- nahiz inbertsio-plangintza garatzea eta balioan jartzea turismoari begira, gizarteratzeko eta zerbitzuak eskaintzeko. Ondare arkitektonikoan zerbitzuak zentralizatzea (kultura-kirol taldeen espazioak, *co-working* aretoak, etab.) eta energetikoki eraginkorrak izateko prestatzea.
- Herri-lurren kudeaketa jasangarria eta landalur berria behar/helburu ezberdinetarako jabetzan hartzea eta kudeatzea: ekoizpena, kontserbazioa, etab.
- Burujabetza energetikorako bideak lantzea, aldiz aurretik energia-trantsizioarako eredia zein izango den adostuz, bai udal mailan zein herri mailan.

2. dinamikarekin amaitu ostean, hurrengo bileran, helburuetatik abiatuaz arloko ekintzak adostuko direla azaldu dute aholkulariek. Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 20:10etan amaitu da.